

danbolin

D
E
N
D
A

2023. azaroa

276 zk.

lau izen,
begirada bizi eta
nortasun zorrotz
bezain alaiko aizarnar
nekaezina



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmazorte.org



M^{re} Jesus Zubia Olaizola
Paralelo Iruya 2, Iruya - 20740 ZESTOA
943 147 657

txoko
taberna

erdikalea 3
tel. 943 147 196



Ekaia Berri
kafetegia

Ordutegia
Aste haurrak:
00:30/18:30
18:30/20:30

Asteburuen
06:30/14:30
Asteazkenez itxia

By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOUEKETA ERREMOUEKETA ERREMOUEKETA
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETABAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANUTENTZE LANAK

tel. 943 147 479
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Zestoa
AUTOSKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44



ARABIA
1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31

LEBIA
1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31

ABENDUA
1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28
29 30 31



Erdikalea 5
Tel.: 943 14 73 27
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GERTORIA
KONTABILITATEAK ZERAK
IMMOBILIARIA GERTORIA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASESURUA

Gesalaga kalea, 22 beheko 20740 ZESTOA
Tel./Fax: 943 357 059 www.asesoriaarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizu@roadtoerika@gmail.com
ORDU KORRIKARA KORRIKARA KORRIKARA KORRIKARA
KORRIKARA KORRIKARA KORRIKARA KORRIKARA

Tel.: 943 14 78 28



Fisioterapia
Osteopatia

943 29 08 99

Terbio Alzaga 20 - 22 20740 Zestoa



EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Alzaga 6 - Zestoa
843 887 077 / 848 842 848 residenciagisasola.com



kutxi
pentsuak



www.lurarenonena.com
Telefono: 943 147 134

Luraren onena
Zestoaren bihurtzea



Tel 943 323 894
Gesalaga kalea 11-13



Eizagirre
Okindegia

Tel: 943 090341



Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269



Itzulpen eta
argitalpen zerbitzuak, s.

Itzulpenak baino
askoz gehiago!

Bakun

Paralelo Iruya 2, Iruya - 20740 ZESTOA
T+34 943 148 205 bakun@bakun.es
+34 943 148 280 www.bakun.es



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73

KOIOOTE

foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Landerkes
eta
jatekies
943 148 006

NOLAKO Herria eta auzoak nahi ditugu?

Garai bateko Aizarnara eraman gaitu Begoña Eizagirrek. 1950ean 8 urte zituen. Orduko Aizarnak eta gaur egungoak ez daukate zerikusirik. Hurrengo belaunaldikook adin buelta horretakoei esker irudikatu dezakegu garai hartako bizimodua. Umeak, neska zein mutil, pilotan, asakaponetan, ibiltzen ziren... telefono mugikorra zer zen arrastorik jakin gabe. Orain baino hamarnaka ume gehiago izango ziren Aizarnako eskolan; hor bai, neskak eta mutilak bereizita. Kotxerik gabeko auzoa deskribatu du Begoñak, toki guztietara oinez heltzen ziren garaia. Ez dut uste haurtzaro eta gaztaro idiliko bat azaldu nahi izango zigunik, baina garapenaren ("adelantoak") alde txarrak kontatzeko erreparorik ez du izan. Konpitterora ezkontuta, auzo batek topo egiten zuen denda eta taberna ezagutu zituen. Elkargunea zen; berriketarako, barre egiteko, elkar laguntzeko... Eguneroko behar praktikoak asetzeko ere balio zuen, jakina: janaria, oinetakoak, kandelak, bertan egindako txokolatea... Aizarnatik ateratzeko beharrik gabe.

HAPOari buruzko erreportajea dator *Danbolin* honetan. Ez dut irakurri HAPOa (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) eta ez dakit nolako herria eta auzoak marraztu dituen. Nagia eman dezake halako plan bat irakurtzen hasteak, baina horren arabera erabakitzen da non jaso eraikinak, bizitokiak egin ala industrialdea eraiki, espazio berdeei garrantzia eman ala kotxeentzako bideak egin. Horrek denak herri bat antolatzen du, eta bide batez, neurri handi batean, herritarren bizimodua bideratzen du. Orain herritarrok iritzia emateko garaia da. Begoñari egindako elkarrizketak galdera batzuk egiteko bidea ematen du: Non esango dizkiogu elkarri kontuak? Non elkartuko gara? Zeri emango diogu lehentasuna, kotxeari ala oinezkoari? Herrian, auzoan, egin nahi dugu bizitza?

Begoñak esku-pilotan jokatzeko umetan. Zestoan badira pilotan jokatu nahi, baina orain arte animatu ez diren arabiar jatorriko neskak. Naroa Agirre Arroagoiko pilotari profesionala haiengana hurbildu da eta haiek pilotalekura hurbiltzeko proiektua jarri du abian.

onintza irureta azkune



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN
HARTZEN ALDIZKARIAN
ADIERAZITAKO ESANEN ETA
IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazaila: DANBOLIN ZULO
ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN
ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA
(GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO,
AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO,
SARA MATSUTANI, PERU GARCIA, JONE
BERGARA, ITSASO WALIÑO, OHIANA
CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOETXEA
Kolaborabazaila/auzenbazaila baldea:
NAGORE GELLERIA, JON ARTANO,
FERNANDO ARZALLUS,
ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO,
EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI,
NEREA ODRIOZOLA, ITSASO
ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

Diseinua eta markeabakia:

ENEKO ARISTI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISBN: 1576-9429



Zestoa Herri maitagarria

Ai bai! Hau bai sorpresa eman *diakena* Ipintza. Ikusten dit azkena ikusi gineneko 20 minutu haiek buruan ondo gordeta *ditukela*. Izan ere, hainbat urtetan elkar ikusi gabe egon arren, Donostiako Aste Nagusiko gaueta-



ko batean, trenean elkarrekin topo egin eta lasai asko hitz egiten hasi gintuan, Zestoako hainbat altxorrez. Zenbat anekdota aipatu genituan denbora labur horretan eta zenbat barre bota... Hire enbidoa *letuta* ere, konklusio berdinerira iristen nauk, zorte handia dugula bizi garen herrian bizitzeaz. Enbidoan komentatzen deken bezala, gure adineko mutil gehiengoa bezala, gaztaroan kirolak mugitzen gintuan, urtean zehar futbola, beheko Zubimusu zelaian. Udarari, aldiz, hain ezagun eta berezi diren pelotako txokoko txapelketa, eta, azken urteetan egin ez arren, palako txapelketak ere bizia eman izan die herriari eta herritarrei.

Kirol horiek asko hurbiltzen gintuzten garai hartan, kirol horiek egiten zituzten gazteekin eta, distantziatik, guretat erreferente eta idolo batzuk ziren. Ez naiz ausartuko izen batzuk ematera, bestela baten bat haserretuko zait. Denborarekin, eta gu heltzen joan ahala, gaztaroko idoloekin gauzak bizitzeko aukera izan dugu, neurri handi batean gure herriak ematen digun gertutasunagatik. Suerte handi bat da hori, gaztetako idoloak lagun bihurtzea.

Urte batzuk pasa ondoren, Mollergi Tabernan lana egiteko suertea izan nuen eta han herriko beste aspektu batzuk ikusi eta bizi izan nituen. Gauza asko ikasi eta gustatu zitzaizkidan, esaterako, jendearen gertutasuna, eskuzabaltasuna, herriak duen bizia, ekintza txiki zein handi antolatzean herriak ematen duen erantzuna. Herri emankorra dugu eta nire ustetan, zaintzen eta bizia ematen jarraitu behar dugu herritar guztiok bizi eta gozatu dezagun dugun suertean.

Amaitzeko, oraingoan hitza estimu handia diodan emakume handi bati pasatuko diot. Ea Lurdes Arrizabalaga, konta ieza-guzu herri polit honek zure bizitzan zehar emandakoen eta

bizi izan dituzun zenbait bizipenen berri. Laster elkar ikusiko dugulakoan, besarkada eta muxu handi bat!

adonis gelis

pintada.

zestozentristak, askatu ENBIDOA! Danbolinen Enbidoa atalak urteak daramatza herriko pertsona baten eskutik besteari pasatzen, baina ia beti herrigunean geratzen da, eta auzoetara apenas heltzen da. Auzoetako bizilagunontzat argi geratzen da, ariketa kontzientea egiten ez bada, gure auzoak bazterrean geratzen direla, egunerokotik hasi eta egiturazkoraino. Horregatik, ez izan Zestozentrista eta Enbidoa iristen bazaizu bidali auzotar bati!.

ohiana calpargora, auzotarra

Semaforoan 15 minutu itxaron behar duzulako kexatzen diren horietakoa zara?

Ni Zumaiara oinez joan behar nuen bakoitzean bizia arriskatzeko zutenen artean nago.

Bidez inguratuta bizi gara gure herrian, bidegurutze handi bateko "zentroa" gara. Beti pentsatu izan dut zorte onekoak izan garela oso komunikazio ona izan dugulako inguruko herriekin: bi errepidez



inguratuta gaude, bi trenbide ere izan genituen iraganean eta bi erreka ere baditugu orain, bi ur-bide. Guztion nahia da etorkizunean bidegorri bat, bide berdea, izatea. Bada bidea...

Ia 30 urte daramatzagu borrokan, Iraeta eta Narrondo elkarteko falta den bidegorri zatia amaitzeko. Erraz esaten da... Auzo elkartetik hasi eta herri guztia mugitu zuen ekimena izan zen. Zenbat bilera auzoan, zenbat udaletxean, Gipuzkoako Batzar Nagusietara ere joan ginen... Hilabetero ere jartzen ginen errepide bazterrean eta Zumaiatik hasi eta Zestoarainoko manifak ere egin genituen ordu batzuez errepidea itxiz. *Herriak lotu, bidegorria amaitu!*

Askotan bueltatzen ginen etxera burumakur, kasurik egiten ez zigutelako. Baina ez genuen etsi, eta gaur egun inoiz baino hurbilago ikusten dugu gure garai bateko ametsa. Tristeia da lanean buru-belarri ibili zen jende askok ez duela ezagutuko bidegorria, tamalez asko luzatu baitira lanak (nahiz eta alderdi politikoren batek bere publizitatean Zumaiatik Brinkolarainoko bidegorria eginga zegoela jarri, orain dela urte batzuk).

Gure etsai eta lagunak GI-631 eta N-634 dira. Bi errepide hauek auzoa bi zatitan banatzen dute eta semaforo bana jartzea ere eskatu genuen bere garaian. Baita lortu ere. Karmengo ama kalean bizi direnek errepidea lasai gurutzatu dezakete orain.

Ia astero elkartzen ginen eta "familia" txiki modukoa genuen sortua, gure gorabeherekin, noski. Herritarren erantzuna ere paregabea izan zen, antolatutako gauza denetara mugitzen ziren.

Azkena, parkea eta plaza bitan zatitzen dituen bidea. Plaza eta parkea ez ezik herritarrak ere banatu dituelakoan nago. Batzuk bidea itxi eta oinezkoentzat soilik utzi nahi bazuten ere, bozkatu eta herriak bidea autoentzat irekita mantentzea nahi zuela lehenetsi zuen. Bakoitzak izango ditu bere arrazoiak, baina norberak bere erosotasuna alde batera utzi eta herritarren segurtasunari erreparatuko balio?

Hau guztia esanik eta herri honen historia txikia ezaguturik, esan nezake borroka dela bidea.

BERDINTASUNARI BURUZKO HEZIKETA ere ETXETIK HASTEN DA

Gizarte berdinzalea garela esango al zenukete? Bai, noski...

Indarkeria matxista identifikatzen ikasi dugula uste duzue? Bai, noski... Kaleko inkesta bat egingo bagenu, badirudi galdera horien erantzunak positiboak izango lirakekeela. Baina zori-txarrez, errealitatea ez da horrelakoa.

Duela gutxi Emakundek antolatutako Beldur Barik programaren komunikazio lanetan parte hartzeko aukera izan dut. Programa horren helburua da gazteen artean indarkeria matxista saihestea eta haiekin batera



hausnarketa eta eztabaidak sustatzea, Beldur Barik Jarrera bultzatuz.

Baina Beldur Barik jarrera sustatzeak ez du soilik esan nahi emakumeen ahalduntzea bilatzen denik, gizonezkoen inplikazioa eta indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa ere jomugan daude. Eta azken egunetan ikusi dudanagatik, helburu horiek inoiz baino beharrezkoagoak dira. Uste nuen azken urteetan aurreratu genduela kontzientziazioan eta ahalduntzean, baina badirudi ez dela horrela.

Sestaoko irakasle batek esan zidan ez zutela Beldur Barik lehiaketara lanik aurkeztuko, ikasle taldeen artean, mutilen partetik, mezu matxistak nagusitu zirelako, ikus-entzunezkoak sortu zituztenez. Hain izan zen agerikoa emaitza, ezen Gizonduz zerbitzuarekin harremanetan jarri baitziren.

Bestalde, duela egun batzuk neska gazte batek aitortu zidan Zestoako autobus paradan, arratsaldeko 20:00etan lauzpabost neskak eraso egin ziela sentitu zutela, ipurdia begiratzen eta eurengana hurbiltzen zen gizonezko batek. Ez ziren ezer esatera ausartu, ondoren autobus berdinerara igo behar zutelako.

Ez da nahikoa emakumeek egoerei erantzuteko bitartekoak garatzea, ez da nahikoa ahalduntzea. Indarkeria matxista egoerak sorrarazteko edo horiek babesteko prest dauden pertsonak dauden bitartean, ez dugu gizarte bezala aurreratu.

Bi alaba ditut. Nire ardura da eurei indarkeria matxista egoerak identifikatzen eta horiei erantzuteko moduak eta bitartekoak aurkitzen laguntzea. Paradan beldurra sentitzen badute, zer egin dezaketen irudikatzen saiatzea. Baina nire lana ezerezean geratuko da beste etxe batzuetan egoera horiek sorrarazten dituzten ingurukoek (aita, ama edo senideek) horiek baztertu eta salatzen ez dituzten bitartean. Batzuetan semeak, anaiak edo bilobak ez dira erasotzaileak izango, baina gizonezko bezala, bere inguruko egoerak salatzen bete dezaketen paper aktiboari buruz hitz egin beharko zaie. Berdintasunari buruzko heziketa ere etxetik hasten da eta gizartean zabaltzen da.

Begoña Eizagirre

'ADELANTOAK MUNDUA IZORRATU DU'

DENDATIK SARTU NAIZ GAUR KONPITTERONERA, ASTEGUNEZ TABERNA ITXITA BAITAGO. SUKALDEAN DITUT ZAIN BEGOÑA EIZAGIRRE (1942, AIZARNA) ETA EINI IZETA (ZESTOA, 1996) BILOBA. SEGITUAN ALTXA DA BEGOÑA, "HI ETORRITA MANTALA KENDU EGIN BEHARKO DINAT, EZTA?". "NAHI DUZUN BEZALA" ERANTZUN DIOT, BERE ETXEAN NIK AGINDU BEHAR OTE DIOT BAI! HASI AURRETIK, KOMUNERA JOAN BEHARRA DUDALA ESAN DIOT ETA KANPOKO BARATZERA EMATEN DUEN ATEA SEINALATU DIT. LASAI EGOTEKO, ONDO EZAGUTZEN DUDALA BIDEA ESAN DIOT. "BAI, ONDO JAKINGO DUN, BAINA ASPALDIAN EZ HAIZ ETORRI HONA E!", BISITA GEHIAGO ERREKLAMATU DIZKIDALA USTE DUT. BIZI ETA ARGI DAGO ORAINDIK BEGOÑA, EZ DUT IMAJINATU ERE EGIN NAHI GAZTETAN ZE SASOI ETA GARBO ZUEN! BERE BEGIRADAN ORAINDIK BADA ARGITASUN BAT, EZ DAKIT NOLA AZALDU... ETA KAMERAREN AURREAN SERIO-SERIO JARRI BAZAIGU ERE, IRRIBARRE BIHURRIA BETI AHOAN. KOMUNETIK BUELTRAN SUKALDEKO MAHAIAN ESERI GARA HIRUROK. KAFEA ETA PASTAK PREST! ETA ZURI-BELTZEKO DOZENAKA ARGAZKI... UDAZKENEKO ARRATSALDE BATERAKO PLAN HOBERIK BURURATZEN?



Hasteko, aurkeztu zure burua. Izen-abizenak?

Ni naiz Maria Josefa Antonia Begoña Eizagirre.

Ene ba... luzeagoa ezin.

Ahizpa zaharrenak Begoña ipini nahi zidan; maistraren baten edo alabak hala izena zuela, gustatu, eta Begoña. Urtarrilean jaio eta elurra. Zaragozatik etorri behar zuten osabak eta izebak nire bataiora, osaba Antoniok izan behar baitzuen aita pontekoa, baina elurrarengatik etortzerik ez. Orduan osaba-izeben izenak ipini zizkidaten Josefa eta Antonia. Ama pontekoa Igartzako izeba Maria izan zen, beraz bere izena ere jarri zidaten. Gizona Xixilio zuen eta eskerrak ez zitzaion okurritu Xixilia ipintzea, bestela bost izen izango nituen.

Non jaioa zara?

Saletxen, hortxe!

[Leihoko gortina zabaldu eta goian ikusten den baserriari begiratu dio]

Esnatzen naizenean egunero ikusten dut jaiotetxea.

Haurtzaroko ze oroitzapen dituzu?

Zazpi anai-arreba ginen, sei neska eta mutil bat, ni bosgarrena. Eskolan hasi arte ez dut gogoan kalera jaisten ginenik. Eskolan zazpi urterekin hasten zen orduan. 62 neska eta 40 mutil ibiltzen ginen, mutilak maisuarekin eta gu maistrarekin.

Orain ez da hainbeste ume Aizarnan. Hala ere, auzo txikietan eskola izatea garrantzitsua da ezta?

Bai horixe, bestela hilda dago. Umerik gabe, eskolarik gabe, oso tristea da herria.

Alaba, ama, amama eta birramona zara. Haurren heziketan aldaketak sumatuko zenituen ba?

Gure garaian paliza ederrak jasotzen ziren eta orain kasik umeek hartu dituzte mendeen maisuak. Nik horixe ikusten dut; lehen gehiegia eta orain beste aldera.

Jolasa ere aldatu da, ezta?

Gu pelotan ibiltzen ginen asko, etxean egindako pilotekin.

Ahizpa zaharrak egiten zituen baina, zoragarriak e! Euria zenean pelotan egiten genuen, eta busti egiten zen. Sakaponekin ere bai. Etxean ardiak zituztenek handi-handiak erabiltzen zituzten, gure etxean ez zen ez ardi eta ez arkumerik eta haien inbidiaz ni. [Kutxa batean gordeta ditu batzuk eta mahaira atera ditu, eta jolasa azaltzen hasi zaigu]

Nik zuri pilota bota eta hark bota eta hartu egin behar. Zaila izaten zen. Hau da Ajone, hau Azake, hau da Aponi... Hau da Txulo, hau Akerne...

Baina hauek umetan ibiltzen zenituenak dira?

Bai zera! Orain arkumeari hartutakoak, bilobek jolasteko esperantzan, baina ez didate kasu handirik egiten. Hauek ez dute astirik ezertarako, beti zerbait izaten dute.

Zu ere jolaserako asti handirik gabe, gazterik lanera ezta?

20 urte aurretik edo, aurrena Zarautzera, taberna batera. Ez dakit existitzen den orain, baina Azken Portu deitzen zen. Ereñoken tartekoak ziren. Zerbitzatzen ibiltzen nintzen eta gero segidan Donostiara, jatetxe bateko sukaldera. Urbietan kalean zegoen, Barbara Goenaga aktorearen birraitonarena edo zen. Lo eta dena han egiten genuen, bertan 4. pisuko bizitzan geratzen ginen langileok. Etxarri Aranazkoak, Elgoibarkoak, Goiazkoak... ziren lankideak.



1. Konpitteroneko tabernako barran.
2. Roman Iruretagoiena senarrarekin.
3. Aizarnako neska-mutilak. Begoña Eizagirre erdi-erdian koadrodun soinekoarekin; Eini bilobaren antza ikaragarria du.

Denak herritik hirira. Donostia ezagutzeko aukerarik izan al zenuten?

Nik iluntzean bi ordu edukitzen nituen libre, 17:00etatik 19:00etara. Bakarrik ateratzen nintzen, gehiegi urrutiratu gabe, galtzeko ere... Plaira ere joaten ginen, baina serenoa egoten zen eta ordu horietan ez zigun uzten bainatzen.

Eta bezeroekin eta ze harreman zenuten?

Ez dakit, ni beti sukaldean.

Donostiatik Aizarnara bueltatu eta 22 urterekin ezkondu. Gaur egungo aplikazioen beharrik ez zenuten izan zuek ligatzeko, aldapan behera egin eta listo?

Horixe, albokoarekin.

Eta hemen Konpitteronean lanean jarraitu zenuen.

Gaur bezala jendea jaten eta ez zen geratzen orduan. Orain dena kanpoan, mundu guztia *kozinero* famoso da, eta hala ere, mundu guztia kanpora joaten da jatera. Lehen taberna eta denda dena bat ziren. Hemen txokolatea egiten zen, baita kandelak ere; baina horiek umetako oroitzapenak dira, ni etorri nintzenerako ez ziren egiten. Nire gizonaren aitak azukrezko *algodoia* egiten zuen hemen. Hortxe dago ontzia. Eta guk denetik saltzen genuen: janaria, oinetakoak...

Auzoan eskola bezala, denda ere inportantea da.

Adelantoak mundua izorratu du. Mundu guztiak kotxea dauka, eta denak kotxez joaten dira Eroskira. Lehen denera oinez joan behar izaten zen, eta orduan produktu guztiak hemen saltzen ziren. Aurreko batean gazte batek jostorratz jakin bat nahi zuela eta ez zuela inon topatzen. Nik jostorratz horiek banituela esan nion, garai batetik gordeta, eta han atera nizkion. Batzuetan *adelantoak* ez du ondo funtzionatzen.

Esan duzu tabernan jatordu gutxi, baina hau auzotarren topalekua zen ezta?

Aranburuko aitona, Dionekoa, Kantxilakozarrekoa... bost edo sei iluntzero hemen izaten ziren.

Gizonezkoak bakarrik?

Emakumeak gero hasi ziren, eta jaietan bakarrik. Eta lehenengoan *bronka* galanta, gainera, emakumeak sartu zirelako. Aitita Felixek errietan egin eta bidali egin omen zituen emakumeak.

Hemen aspertzeko denborarik ez, beti jendez inguratuta, ezta?

Telebista ikustera etortzen zen jendea. Zapatu arratsaldean egoten zen *Sesión de tarde* edo pelikula. Eta hogeitaka lagun edo elkartzen ginen dendan, ez tabernan. Gerora banatu egin baitziren taberna eta denda. Inork ez zuen telebistarik eta hemen ikusten genuen denok batera.



Oraindik ere taberna eta denda bueltan jarraitzen duzu.

Norbaitek kafe bat behar badu, nik azkar-azkar aterako diot. Kontuak eta esaten gustura egoten naiz, edo pilota partidua ikusten. Askok gustatzen zait jendearekin egotea.

Eta gaztaroan dena ez zen lana izango ba? Festarik ez?

Ba asko ez, 22 urterekin ezkondu nintzen eta! Bestela hemen jaiero izaten zen erromeria, Aizarnan bertan. Orduan bai, dantza franko!

Dantzazalea orduan? Nola ikasi zenuen?

Besteei begira, ni ez naiz inon ibili izan ikasten.

Orain asmatuko al zenuke?

Bai, bai. Lehen bezain arin ez, baina egingo nuke! Aurtengo amabirjinetan ez naiz atrebitu eta pena ederrekin gelditu nintzen.

Hurrengo urtean etorriko naiz eta biok aterako gara.

Ez dut ahaztuko e!

Orain beste era batera egiten dute gazteek parranda, ezta?

Askok aldatu da. Gure garaian 22:00etarako etxera eta orain 22:00etan ateratzen zarete. Zeuk atera kontuak! Eta nik zerbeza edaten ez nuen ikasi. Itxialdi garaian bilobarekin ikasi nahian ibili nintzen, kar, kar, kar!

Zer edaten zenuten ba?

Ezer ere ez. Dantzan egin eta dantzan egin eta egarriak baldin bazeunden, iturrira joan behar ura edatera. Eskerrak ez zegoen urrun!

[Etxera iritsi eta kasuen! Gehien interesatzen zitzaidan galdera ez diodala egin Begoñari akordatu naiz. Ez dakit nola pasa zaidan... Beste egun batean berriz igo naiz Aizarnara. Oraingoan sukaldean kaferik ez, oraingoan gaztainak erretzen ari da Begoña. Bigarren bueltak ere merezi izan du. Ederra merienda!]

Eta zuen garaian ere egingo zen ba oilasko-biltzea?

Bai, horixe. Aurrena oilaskoak biltzen zituzten baserriz baserri gizon gazteek. Goiz bildutakoak azkar ekartzen zituzten beste tabernara, Martinenera eramaten zituzten eta han hil eta prestatzen zizkieten eguerdian bertan bazkaltzeko. Oilasko-biltzea bukatzen zutenean

oilasko-dantza egiten zuten plazan. Oilaskoa makila batera lotuta ipintzen zuten eta dantzazale batek begiak itxi *pañelo* batekin eta hura bilatu behar izaten zuen dantzan eginez. Oilaskoa bilatutakoan hortzarekin moztzen zion lepoa. Gero dantzaurrea ateratzen zuten. Zortzi bat mutil ateratzen ziren *pañeloak* eskuan soinuaren doinura. Aurrenengo joaten zenak neska aukeratzen zuen. Uste dut bi mutil joaten zirela bila eta erdian eramaten zutela. Eta lehenengoak hari dantzatzen zion. Gero neska gehiago

ere aukeratzen zituzten dantzarako. Zortzi mutil baziren, zortzi neska. Eta gero denak batera dantzatzen ziren. Polita izaten zen! Umea nintzeneko oroitzapenak dira gero galdu egin zen eta urte batzuetara berreskuratu zen dantzaurrea, baina oraingoa ezberdina da.

Zuen garaian, Aizarnatik alde egin zuen jendeak herri eta hirietara. Orain, berriz, asko etorri dira herri eta hirietatik.

Etxebizitza ere pixka bat merkeago dago hemen, normala... Niri iruditzen zait hau asko maite behar dela, bakardadea dago. Nik uste lasaitasun bila etortzen direla. Badakit bakarren batek pisua erosi eta aspertu eta alde egin duela.

Asteazkenean ezin genuela zita egin esan zidan Einik, ibilaldia omen duzu.

Bai! Jubilatuen Elkartekoekin. Diabetikoa naiz eta bolada batean joan gabe ibili naiz, baina azukrea berdin-berdin altxatzen zaidanez berriz joaten hasi naiz! kar, kar, kar! Ederra da jendearekin egotea, eta besteek preparatutako jatea, zer esanik ez. Eseri eta jan.

Eta zestoarrekin ondo? Aizarnarrek beti deitu izan diguzue "zestoar txorok". Zergatik?

Guk burla asko jaso dugu zestoarregandik. Zestoara oinez abarkekin joaten ginen azokara eta. Eta hizketan "kok" eta esaten genuelako ere bai.

Eta bukatzeko, zer eskatzen diozu bizitzari?

Nik ezer ere ez, horrelaxe, ederki bizitzea. Gustura bizi naiz. Lan franko egiten dut, baina gustura bizi naiz mundu honetan.

amaiur aristi arregi

4. Amaiur Aristi eta Begoña Eizagirre Konpitteroneko sukaldean, argazki zaharrei begira.
5. Donostiako jatetxeko sukaldean lankideekin.
6. Jaiotetxea duen Zaletxe baserriaren atarian.
7. Ezkontza batean edaria zerbitzatzen, orduan ere ezin ba lanik egin gabe egon. Alboan ditu Roman Iruretagoienea senarra eta Eleuterio Tapia soinu-jole ezaguna.



ZER DATOR HAPO BERRIAREKIN?

ZESTOARRENTZAT GAKOAK

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA (HAPO) EZ DA PLANO ETA ARGAZKIEN MAPA HUTSA. HERRI BATEN BIHOTZA NOLA ANTOLATUKO DEN KONTATZEN DUEN DOKUMENTUA DA: NOLA HAZIKO DEN, ZER BABESTUKO DEN, ZEIN BIDE IZANGO DITUGUN ETA NON EGINGO DUGUN TOPO ELKARREKIN. PLANAK GURE EGUNEROKOAREN OINARRIA MARRAZTEN DU, ASKOTAN KONTURATU GABE IBILTZEN GAREN ESPAZIO HORIEN LOGIKA BERRITUZ.



Indarrean dagoen araudia 1996koa da, eta ordutik mundua, herria eta gure beharrak aldatu egin dira. Testuinguru horretan etorri da HAPO berria, eta urriko Zestoako Udaleko osoko bilkuran hasierako onespina jaso ondoren,

dokumentua jendaurrean dago. Orain herritarrok dugu hitza: urtarrilaren 15era arte aurkez daitezke alegazioak, zalantzak eta iruzkinak. Ez da tramite hutsa; herriaren etorkizunaren parte izateko aukera da.



ZER DA HAPO BAT?

HAPOk hiru galdera nagusi erantzuten ditu:

1. Zer lurretan eraiki daiteke eta zer lur eratuko da libre?
 2. Zein erabilera izango du espazio bakoitzak? (bizitegi, industria, ekipamendu...)
 3. Zer sare behar ditu herriak? (bideak, espazio berdeak, oinezkoen loturak, irisgarritasuna...)
- Eta gaur egun ezinbesteko bihurtu diren beste gai batzuk ere jasotzen ditu: mugikortasuna, ondarearen babesa, soziolinguistika, energia-eraginkortasuna eta ingurumen arriskuen kudeaketa.

HERRIGUNE ETA AUZOETAKO NORABIDE NAGUSIAK

ZESTOA - HERRIGUNEA

314 etxebizitza berri aurreikusten dira: 118 sozial, 62 tasatu eta 117 libre.

Eremu nagusiak estazioaren ingurua, Idiazpi mendebala, Artetxe - Arozena eremua eta Lizarraitz ingurunea izango dira. Arozena hotelaren lurretan erabilera mistoa planteatzen da, ostalaritza eta etxebizitza uztartuz.

Urbanistikoki, hutsik dauden orubeak aktibatzea, irisgarritasuna hobetzea eta ibaiari protagonismoa ematea dira gakoak. Horregatik, estazio zaharraren eta TS fabrikaren eremua gune berde zabala izatera igaroko da.

ARROABEA

Auzo honek izaera herrikoa gordetzen du, eta bere garapena neurtua izango da.

Bertan 50 etxebizitza berri aurreikusten dira: 35 sozial eta 15 libre.

Bide seguruen antolaketa eta espazio publiko txikien hobekuntza dira lerro nagusiak, auzoaren erritmoa aldatu gabe.

ARROAGOIA

Mendixka gaineko ikuspegia duen auzoan 11 etxebizitza libre ageri dira dokumentuan.

Garapena mugatua izango da, paisaiaren eta egungo egituraren neurrira. Oinezko konexioak eta herrigunera jotzeko bideak hobetzea ere planteatzen da.

AIZARNA

Auzoak bere izaera txikia eta trinkoa mantenduko du. 28 etxebizitza libre aurreikusten dira pilotaleku atzean, Santakutz kalean eta Asuntzio kalean. Erabilera mistoen antolaketa eta irisgarritasuna hobetzea dira norabide nagusiak.

LASAO

Industria eta bizitegi eremuen arteko banaketa argituko da. Etxebizitza berririk ia ez da aurreikusten, baina bai mugikortasun seguruagoa eta bizikleta bidezko loturak Zestoarekiko.

NARRONDO

Baserrri-ingurune eta paisaia dira bertan protagonista. Uholde-arriskua duten eremuetan kontrol zorrotzagoak ezarriko dira, eta garapen berriek ez dute paisaiaren izaera aldatuko.

IRAETA

Auzoaren antolaketa sendotzea da helburua: bide seguruagoak eta gune aktiboagoak sortzea.

13 etxebizitza libre aurreikusten dira.

ETXEBIZITZA TURISTIKOAK: MUGAK ETA IRIZPIDEAK



Planak arautzen du nola heda daitezkeen etxebizitza turistikoak:

- Beheko solairuan ez dira baimenduko
- Lehen solairutik aurrera bakarrik, eta solairu osoa jarduerarako bideratuta
- Etxebizitza bakoitzak aparkaleku bat izan beharko du

Helburua bizitegi erabilera eta jarduera turistikoa orekatzea da, auzoen eguneroko bizitzari eutsiz.

LANDA EREMUA ETA KORRIDORE EKOLOGIKOA



Baserrri eremuetan, gehienez hiru etxebizitza baimenduko dira, Eusko Jaurlaritzaren araudiak markatutako mugen barruan.

Bestalde, Azpeitia eta Errezilekin elkarlanean, korridore ekologiko bat lantzen ari da Udala, fauna eta paisaia babesteko.

ARLO TRANSBERTSALAK



SOZIOLINGUISTIKA

Hizkuntza ez da hitzen kate soil bat; gure harremanen airea da. Auzo bat antolatzeke moduak, zein plaza, zein itzalgune edo zein pasabide dituen, askotan baldintzatu egiten du

non eta nola sortzen diren elkarrizketak.

Zestoak euskararen arnagune izaten jarrai dezan, HAPOk bildu egiten du urbanismoak hizkuntza-ohituretan duen eragina: espazioen antolaketa, mugikortasuna edo auzoen egitura izan daitezke hizkuntza baten eguneroko eszenatokiak.

Planarekin aurrera egin ahala, ikuspegi horrek pistak ematen ditu hizkuntzari buruz egin beharreko lanketa identifikatzeko, eguneroko bizitzaren dinamikei adi egonez.

INGURUMENA



Ingurumena ez da planoen ertzean kolore berdez margotzen den eranskina: herriaren arnasa da.

Uholde-arriskuko eremuetan marraztutako mugak ez dira debeku hutsak; ibaiak bere erritmoa gorde dezan egindako pauso isilak dira.

Lur kutsatuak identifikatzea herri baten

memoria zaharra aireztatzea da, eguneko argira ekartzea. Eta gune berdeak sendotuz, ibaiari protagonismoa emanez eta mugikortasun jasangarriaren alde eginez, HAPOk etorkizuneko Zestoa marrazten du: argiagoa, arinagoa, ibaiaren erritmoa errespetatzen duena.

ORAIN DUGU PARTE HARTZEKO AUKERA



Hasierako onespina emanda, dokumentua jendaurrean dago. Urtarrilaren 15era arte, herritarrek aukera izango dute HAPO irakurri, zalantzak partekatu eta proposamenak egiteko. Urbanismoa ez da plano batean hasten eta bukatzen: gure herriak etorkizunean izango duen forma definitzen duen ariketa kolektiboa da honakoa.



MUSIKA BANDAK KONZERTUA ESKAINI ZUEN SANTA ZEZILIA EGUNA OSPATZEKO

Zestoako Musika Bandak Santa Zezilia eguneko ohiko kontzertua eskaini zuten azaroaren 22an. Eguraldi txarrak behartuta, udaletxe azpian eman zuten kontzertua. 19:00etan kontzertua iragarri zuten kalejirarekin eta 19:45etatik aurrera, dozenaka lagunuen aurrean, askotariko doinuak jo zituzten.

Iñigo Cearsolok gidaturiko kontzertuan, besteak beste, Tercio de Quites (Rafael Talense), El Barbero de Sevilla (G. Rossini, mold. L. Gonzalez Narro), Aires Vascos Nº 1 (José Franco), The Beatles in concert (Lennon & Mc Carney, mold I. Cearsolo) eta Rivieren Cyclus (Ariel Malando, mold. K. Vlak) piezak eskaini zituzten musikariek.



LAGAPEN HITZARMEN BERRIA SINATU DUTE ZESTOAKO UDALAK ETA ARGIOALAK

Zestoako Udalak eta Argiolak, Zestoako Energia Berriztagarrien komunitateak, lagapen hitzarmen berria sinatu dute. Iaz, Udalak Aizarnako pilotalekuko teilatua eta Arroabeko eskolaren teilatuko zati bat utzi zizkion Argiolari; oraingo hitzarmenari esker, Iraetako futbol zelaiaren eta Zestoako Herri Ikastetxearen teilatuak ere utziko dizkio Argiolari. Helburua, epe laburrean bi eremu horietan ere plaka fotovoltaikoak jartzea da.

Udalak trantsizio energetikoaren arloan egiten ari den lanketa eta estrategiaren baitan, dagoeneko energia berriztagarrien lehenengo gunea martxan duela adierazi du. Kiroldegiko teilatuan jarrita dauden eguzki plaken bidez sortzen den energia %100ean Udalak bere erabilerrarako da.



PARTE-HARTZE ZABALAREKIN OSPATU ZEN AGIRO MENDI KLUBAK ANTOLATUTAKO MENDI ASTEA

Hilaren 13tik 16ra bitartean ospatu zen Agiro Mendi Klubak antolatutako Mendi Astea. Ohiko moduan, mendiari lotutako askotariko ekintzak egin zituzten. Armenia eskiekin hitzaldiarekin hasi zen Mendi Astea. 20 lagun inguru bildu ziren Alonderon, Jon eta Roman anaiek, beste bi lagunekin batera, Armeniara egindako bidaian izandako esperientziak eta bizipenak entzuteko.

Azaroaren 15ean, larunbatez, Jesus Mari Ibarguren "Rubio" eta Juan Karlos Iraolagoitiaren omenez, BTT zeharkaldia egin zuten 19 lagun inguruk. Heldu zein gazte, giro ederrean mendi artean ibili ziren bizikletan. Azken egunean, familiei zuzendutako umeen ibilaldi neurtua izan zen, 45 lagun inguruk parte hartu zutena. Eguraldia lagun, 7,4 kilometroko ibilbidea osatu zuten.



PALESTINAREN ALDEKO MENDI ERRONKAK GELDIALDI BEROA IZAN ZUEN ZESTOAN

Urola Erdiko GK Sak antolatuta, Palestinar Erresistentziaren aldeko mendi erronka egin zen hilaren 1ean, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoa lotuz. Parte-hartzaileek 11 tontor igo zituzten, eta bakoitzean Palestinako bandera jarri zuten elkartasun keinu gisa. Zestoako bi tontorretan jarritako banderak Agiro Mendi Klubak eta Zestoako Pelota Taldeak jarri zituzten.

Erronkak goizetik iluntzera arte iraun zuen. Eguerdi partean, luntxa, erakusketa eta bi herritarrek eskainitako kontzertu akustikoa egin zituzten. 16:30ak aldera iritsi zen lehen taldetxoa plazara, eta handik gutxira, bizikletan zetorren beste talde bat. Bi taldeei harrera beroa egin zieten bertaratutakoek; mokadutxo baten ostean, plazan komunikatua irakurri eta argazkia atera zuten, Ertxina aldera abiatu aurretik.



GIRO EZIN HOBEAN OSPATU ZITUZTEN SANMARTINAK LASAON

Festa giroan ospatu zituzten lasaotarrek San Martin jaiak. San Martin eguna ospatu zuten lehenik azaroaren 11n, meza eta jubilatuen hamaiketakoarekin. Giro bikainean igaro zuten festa-asteburua ere. Ostiralean, txupinazoarekin festari hasiera eman ondoren, auzoko lokalean, pintxo artean, bertako sagardo onenak dastatzeko aukera izan zuten auzotarrek. Ostean, bingoaren txanda iritsi zen, trikiti doinuek lagunduta luzatu zuten sanmartinen asteburuko lehen gaua.

Hurrengo eguna, haurren txupinazoa, buruhandiak eta haurren bazkariarekin hasi zen. Arratsaldean, haurrek puzgarrietan jarduteko aukera izan zuten, eta txokolate janak goxatu zuen arratsaldea. Gauean, lagunarteko giro lasaian, Amets Arzallus eta Andoni Egañaren bertso saioak eman zion amaiera Sanmartin festetako egitarauari.



MOZORRO BELDURGARRIAK IZAN ZIREN PROTAGONISTA, GAU BELTZAREN EGUNEAN

Mozorro beldurgarriak soinean eta aurpegiak margotuta atera ziren kalera haur zein helduak, Santu Guztien egunaren bezperan. Zestoan, Arroabea eta Aizarnan, mozorro eta kalabaza artean ibili ziren, ilunpeari argia eta festa jartzen.

Zestoan, hilerrian bildu ziren herritarrak, kalabazak eta kandelak eskuetan, kalejira isila egiteko plazaraino. Bideo eta abestien artean ibili ziren haur eta gaztetxoak udaletxe azpian, eta arratsaldea borobiltzeko, gaztaina erreak jan zituzten.

Aizarnan, berriz, photocall-a eta jolasak izan zituzten frontoian, musikaz lagunduta. Festa giroan jarraitzeko, mokadutxoak dastatu zuten, eta amaitzeko, herrian zehar "arimen bidea" argitu zuten ilunpean.

Arroabea, bizkotxo lehiaketaren ondoren, lastargiak hartuta ibilaldia egin zuten auzoan zehar. Arimen Gaueko dantza egin zuten frontoian, eta segidan, bizkotxo lehiaketa, txokolatada eta photocall-a izan ziren. Festa gozo-eltzearekin amaitu zuten.





Normalean ez dut ez emakumezkoen ez gizonezkoen kirola ikusten. Iraetako futbol zelaian hainbat partida ikusi izan ditut, emakumezkoenak zein gizonezkoenak, tokatzen dena. Alabekin ere herrian nesken pilota partidak ikusi izan ditut. Maila profesionalean, ordea, ez dut kirolik ikusten.

Ane Errasti
41 urte



Gaur egun, egia esan, ez dut ez emakumezkoen ez gizonezkoen kirola ikusteko ohiturarik. Lehen, kirola gehiago jarraitzen nuenean, gizonezkoena ikusten nuen batez ere. Egia da emakumezkoen kirola ikustera bertarajoan izan naizela, baina telebistan ikusteko ohiturarik ez dut inoiz izan.

Ainhize Odriozola
21 urte



Aukera dudanean eta zerbait interesgarria badago ikusi izan dut, baina ez dut ohitura handirik. Egia da, hala ere, gizonezkoena gehiago ikusten dudala. Emakumezkoetan, gehienbat futbola eta esku pilota ikusten ditut, normalean telebistan.

Mattin Eizagirre
21 urte



Bai, betidanik. Sarritan ikusten ahalagintzen. Gehienbat emakumezkoen eskubaloia ikusten dut, eta orain futbola ere noizbehinka. Beti telebistan ikusten dut.

Mikel Irure
64 urte

Emakumezkoen KIROLA IKUSTEKO OHITURARIK BA AL DUZU?



Erantzuleak guztira: 82



■ ez, ez dut ohiturarik
■ ez gertatzen
■ bai, noizoran behin
■ bai, sarritan ikusten dut



ale

Iraetako errepidea oso egoera txarrean dago.



ale

Puskatuta zeuden bankuak kendu eta berriak jarri dituzte Arteagan.

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak



943 062 861



Teknologia, liburu, paper denda




Etixerako osagarriak



Arropa eta oinetakoak



Edertasuna eta ongizatea





frontoian ikusi nahi zaituztet

Arroagoitik mundu zabalera jauzi egin duen esku pilotari profesionala da Naroa Agirre (2003). Ados Pilota klubeko pilotaria, Mexikotik itzuli berri da, han jokatu baitu Munduko Frontball Txapelketa. Euskal Herriko Unibertsitatean Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduatu da berriki, eta gradua amaitu arteko azken hilabeteak esku pilota ikergai bihurtuta eman ditu. Arabiar jatorriko neskek zergatik ez duten pilotan parte hartzen hartu du ardatz Gradu Amaierako Lanean. Ikerketa horren ildoari jarraituz, eta Zestoako Udalaren proposamenez, esku pilota topaketak antolatu ditu haientzat.

Gertaerek markatzen dute bidea

Lanak Zestoako pilotalekua du abiaburu. Naroa Agirrek bertan jokaturako norgehiagoka amaitu zuenean, bosgarren mailako hainbat neska gerturatu zitzaizkion, arabiar jatorrikoak ziren. Berriketan zeudela, pilotan ibiltzen ote ziren galdetu zien; haurren erantzuna argia izan zen: ez, baina gustatuko litzaieke. “Tarteka frontoi zaharrera joaten omen ziren, baina pilotarik ez zuten, ez zutela apenas jokatzen”, azaldu zioten. Argazkia aterata agurtu zuten elkar.

Neskek esandakoak “harriduraz” hartu zituen Naroak. “Pilotan ibiltzeko gogoia badute, zergatik ez dira ibiltzen, zein da arazoa?” galdetzen zion bere buruari. Hor, bere Gradu Amaierako Lanaren abiapuntua. Gerturatutako neskak arabiar jatorrikoak zirenez, haien inguruko lana izango zen.

Lehenik, Zestoako Pilota Eskolakoekin jarri zen harremanetan. Neska horiek ez zeudela apuntatuta, eta entrenamenduetara joateko aukera bazuten ere, ez zirela joaten esan zien. “Gerturatu zitzaizkidan haur horietako inor ez omen zen ibiltzen, eta arraroa egin zitzaidan pilotan aritu nahi zutela adierazi baitzidaten”, konstatzen du.

Idea horri helduta ekin zion lanari. Elkarrikeria ugari egin eta informazioa jasotzeki ekin zion. “Zestoako arabiar nesken egoera nolakoa den jakiteko, beharrezko pertsonekin hitz egin nuen: ins-

tituzioetako ordezkariekin, gurasoekin, arabiar jatorriko herritarrekin...” azaldu du. Hala, beste kirol batzuetan parte hartzen zuten arabiar neskak bazirela ikusi zuen, baina esku pilotan, inor ez. GRALekeko tutorearen gomendioz, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari batekin ere jarri zen harremanetan Agirre. Azken urteetako ikerketa-prozesu baten ondoren, jatorri anitzeko emakumeen artean jarduera fisikoa edota kirola sustatzeko programa abiatu berri zuten. Gipuzkoan, bereziki arabiar jatorriko neskentzat zuzendutako ekimenik ez zegoela ikusita, bidea egokia izan zitekeela ondorioztatu zuten. “Programak antzekotasun handiak zituen nire lanarekin; horregatik, haiek egindakoa erreferentziatzat hartzea eta nire lanaren premietara egokitzea gomendatu zidaten. Kontuan hartzekoa da, gainera, programa hori ikerketa-prozesu zabal baten ondorioz sortua dela”, dio Naroak.

Prozesua aurrera zihoan heinean, Agirre tarteka pilotan aritzeko elkartu zen neskekin. Zenbait Eskola Kirolak antolatutako topaketetan parte hartzerantz animatu ziren, baita Santakutz Pilota Txapelketan ere. Are gehiago, alebinen mailan parte-hartzaileen erdia baino gehiago arabiar jatorrikoak izan ziren.

Zergatik soilik arabiar neskentzat?

Naroak azaldu duenez, Foru Aldundiko langilearekin eta bere lantaldearekin harremanetan jarri zenean, adierazi zien urteetako ikerketek argi erakusten zutela emakumeek, bereziki etorkinek, bizi-estilo sedentarioagoa dutela.

“Haien programak erakutsi du parte-hartzea sustatzeko eraginkorra talde espezifiko bati zuzendutako jarduerak antolatzea dela, horrela parte-hartzeaz gain, erosoago sentitzen direlako. Horregatik erabaki nuen jarduera hauek arabiar jatorriko neskentzat soilik egitea. Pilota Eskolan edonork eman zezakeen izena, baina hala ere, ez ziren apuntatzen”, azaltzen du Agirrek. Haren esanetan, proiektua martxan jarrita, ikusiko dute ea neska gehiago animatzen diren etorkizunean. “Ingurune osoa emakumez osatua izatearren garrantzia ere nabarmendu zidaten: parte-hartzaileak ez ezik, entrenatzaileak ere bai”.

Badira proposamena begi onez ikusi dutenak

Naroak bere Gradu Amaierako Lanean neska haien zati handi batean bi saio praktikoa egitea proposatu zuen. Proposamen hutsetik, errealitate bihurtzeko aukerarekin topo egin zuen bidean. Zestoako Udaleko bi teknikarik, Alaitz Egaña (Jarduera Fisiko eta Kirol teknikaria) eta Nora Palmitano (Euskara teknikaria), saio hauek Zestoan martxan jartzeko aukera jarri zio-

Frontoian neska arabiarrekin ateratako argazkia inprimatu eta pilotan jolasteko geratu ginen egunetako batean argazki bana eman nien, atzealdean “FRONTOIAN IKUSI NAHI ZAITUZTEG” IDATZITA.

ten mahai gainean. Zestoako Udaleko bi teknikarik, Alaitz Egaña (Jarduera Fisiko eta Kirol teknikaria) eta Nora Palmitano (Euskara teknikaria), saio bereziak antolatzeke aukera jarri zioten mahai gainean. Teknikariak diotenez, “Naroaren lana aukera moduan ikusi dugu. Gaian aditua den herritar batek herriko errealitatea aztertu du, beharrak identifikatu ditu, eta behar horietatik abiatuta proposamen praktikoa eraman du aurrera. Esku pilota tokian tokiko kirola izanik eta herrian indar handia duelarik, pilota sustatzeko modu egokia dela uste dugu”.

Azaldu dutenez, neska hauek jarduera fisikoa egiteko ez ezik, integratzaile bide egoki gisa ere ikusten dute egitasmoa. Haien parte-hartzea bultzatuta, integratzaile bide eta pilotan jarduteko aukera egokia eskaintzen dela uste dute.

Topaketak Zestoako Kiroldegian egingo dira, eta arabiar jatorriko neskentzat hilero bi pilota saio eskaintzea dute oinarri. “Saioak, bereziki, ludikotasunean oinarrituta egongo dira: ondo pasatzea izango da helburu nagusia, baina baita errendimendua hobetzea ere”, azaldu du Agirrek. Adinari dagokionez, egitasmoa nerabe eta nerabezaroaurrekoentzat pentsatuta dago, 10 eta 16 urte bitartekoentzat. “Gazteagoek parte hartu nahi badute ere, ateak zabalik izango dituzte eta moldatzeko prest egongo gara”, gehitu du. Saio hauen epe ertain eta luzerako helburua da haur hauek gainerakoekin batera pilotan parte hartzerantz iristea.

Proiektua Naroa bera kide den Ados Pilota Klubaren balioekin bat datorrela ere aipatu du. Klubaren helburu nagusietako bat emakume pilotari berriei frontoiaren ateak zabaltzea eta berdintasuna sustatzea da, “gure ondarea zaintzearekin ere garrantzia emanez”. Naroaren proposamenak balio horiek praktikara eramaten ditu.

Azalpenentzako hitzordua

Agirrek herritar guztiei zuzendutako hitzaldia eskainiko du abenduaren 6an, Alonderon. Adierazi duenez, “gure nahia arabiar jatorriko gurasoak ere gerturatzea litzateke, azken batean praktikan arabiar neskak izango baitira jardueretan parte hartuko dutenak”.

Hitzaldiaren ardatza jarduera fisikoaren onurak izango dira. Alde batetik, bizi-estilo sedentarioak etorkizunean ekar ditzakeen kalteak azalduko ditu, eta bestetik, jarduera fisikoa dakartzan abantaila fisiko, mental eta sozialak nabarmenduko ditu.

“Integratzaile bide asko balio du kirolak; azken finean, nahiz eta eskupilota bakarkako kirola izan, entrenamenduak taldean egiten dira”, dio Naroak. Kirolak harremanak sendotzeko aukera ematen du, eta, bide batez, arabiar jatorriko haurrek euskal kulturara hurbiltzeko tresna eraginkorra izan daitekeela uste du.

oihane goikoetxea

Abenduaren 5ean, 19:00etan, Alonderon, hitzaldia eskainiko du Naroak

Eguraldi paregabeak lagunduta, Arroabeko plazak eta kaleek bisitari ugari jaso zituzten hilaren 16an. Bertako zein inguruko herrietako bizilagunak bertaratu ziren azokara, artisauak lanean bertatik bertara ikusi eta postuetan eskainitako askotariko produktuak erosteko aukera baliatuz.

Jada bosgarren urtez antolatu da Arroabeko Artisanen eta Baserritarren Azoka, eta ekimenak sendotzen jarraitzen duela erakutsi zuen aurtengo edizioak. Ohiko produktuez gain, berrikuntzak ere izan ziren. Horien artean, Jakoba Errekondoren hitzaldia nabarmendu zen.

Antolatzaileek alde aurretik azpimarratu zuten ekoizleen eta artisauen lanari ikusgarritasuna ematea zutela helburu, eta asko izan ziren bertan produktu eta piezak lantzen aritu zirenak: zapataria, otargileak, bitxigileak... Kiroldegiko teilatua jarrita dauden eguzki plaken bidez sortzen den energia %100ean Udalak bere erabilerarako da.



EUSKALTZALEON GARAIA DA

- | | | |
|-------------|-------|--|
| Azaroak 28 | 18:00 | herriarren argazkia, plazan |
| | 18:30 | danbolinen eta aek euskaltegiaren urteurrenak, arkupetan |
| Abenduak 3 | 17:30 | haurrentzako tailerrak, arkupetan |
| Abenduak 5 | 19:00 | <i>Frontoian ikusi nahi zaituztet</i> Naroa Agirreren solasaldia, Alondoeron |
| Abenduak 15 | 18:30 | Esnatu ala hil liburuen aurkezpena, Alonderon |
| Abenduak 27 | 17:00 | Euskararen etorkizuna jokoan ekitadia (sarrera + autobus txartela salgai Portalen) |

AZAROA

JUBILATUEN ASTEA:

28 OSTIRALA
18:00. Tortilla
pintxoak eta gaztain erreak,
Jubilatuen tabernan.

29 LARUNBATA
10:00. Ibilaldia.
Ondoren, pintxo dastaketa
Jubilatuen tabernan.

30 IGANDEA
12:30. Meza eta ondoren, ohiko
elkarte bazkaria Jubilatuen tabernan.

ARKEOLOGIA ASTEA:

27 OSTEGUNA
19:00. "Amabiturrieta Zestoako
altxor ezkutua" hitzaldia, Alonderon.

30 IGANDEA
11:00-15:00. Herri azoka,
udaletxe azpian.

28 OSTIRALA
18:00. Abenduaren 27an
Bilbora joateko deia egingo dute
hainbat eragile eta norbanako
euskaltzalek udaletxe azpian.
* 18:30. Danbolin eta AEK-ren
urteurrenak eta euskararen eguna
ospatzeko festa, udaletxe azpian. Miren
Nogalesen bakarrikzeta, bingoa,
erakusketa, musika, jan-edana, etab.
* Odol ateraketak, Alonderon.
29 LARUNBATA
19:00. Aitor Huergo & Lagunak
taldearen kontzertua, Kultur Etxeko
aretoan. * 20:00. Kontzertuak
Gaztetxean: Nabasi eta Kaskezur.

ABENDUA

02 asteartea
18:30. Onintza Enbeitaren liburuaren
aurkezpena, Portalen.

03 asteazkena
Euskararen eguna. Zestoon: 17:30.
Askotariko tailerrak udaletxe azpian: txapak, plaza
apaintzeko euskarazko logoak idatzi banderinetan
eta aurpegi margoketa. Arroabeen: 15:00. Eskolako
jaialdia frontoian. 18:30. Kepa Tribarren eleberri
berriaren aurkezpena, Elkargunean.

05 OSTIRALA
19:00. "Frontoian ikusi nahi zaituztet.
Kulturartekotasuna eta pilota" hitzaldia, Alonderon,
Naroa Agirreren eskutik. * 17:30. Haurrentzat
ipuin-kontaketa, Arroabeko Elkargunean. 19:00.
Gaztaina erreak Arroabeko frontoian.

10 asteazkena
18:30. Mikel Alberdiren poema liburuaren
aurkezpena, Portalen.

11 OSTEGUNA
17:00. Gabon kanten entsegua, Arroabeko
Elkargunean.

12 OSTIRALA
21:00. Bertso afaria, Gure Txokoa Elkartean.
Bertsolariak: Andoni Egaña eta Agin Laburu.

15 astelehena
18:30. Garikoitz Goikoetxearen liburuaren
aurkezpena, Alonderon.

16 asteartea
18:30. "Txillarrek sukaldaria" dokumentala
eta liburuaren aurkezpena, Alonderon.

17 asteazkena
19:00. Herriguneko kultur azpiegiturari
buruzko hausnarketaren bigarren bilera, Jubilatuen
tabernan.

18 OSTEGUNA
17:00. Gabon kanten entsegua, Arroabeko
Elkargunean.

ABENDUKO agenda

GAZTELEKUAN:

4 ETA 11: Olentzeroa prestatu (3.
zikloa)

5 ETA 12: Olentzeroa prestatu (DBH)

13: Gabonetako izen-emateak (DBH)

18: Jolas libra (3. zikloa)

19: Jolas libre (DBH)

20: Bilarreko txapelketa (DBH)

29: Buruarinen tailerra (HH4, HH5 eta
1. zikloa). 16:00-18:00 edo 18:00-20:00,
Alonderon. Ume bakoitza heldu batek
lagunduta. (Izen-ematea 688 684 029
zenbakian, abenduak 13 azken eguna).
Partxis erraldoia (3. zikloa). 16:30,
Gaztelekuan.

30: Txuri Urdinera irteera (3. zikloa
eta DBH). Irteera 15:45ean kiroldegi
aurretik eta itzulera 20:30ean.
Autobusa Aizarnan edo Arroabeen
hartzeko aukera. Prezioa 15,45 euro.
(Izen-ematea 688 684 029 zenbakian,
abenduak 13 azken eguna).

Haurrentzat JOLASAK, BARBANTXO AISIALDI taldearekin:

Herriguneko HH: abenduak 10 (17:00,
gaztelekuan)

-Herriguneko LH: abenduak 12 (17:00,
gaztelekuan)

-Aizarnan: abenduak 12 (17:00, kultur
etxean)

-Iraetan: abenduak 5 eta 19 (17:00,
elkartean)

Gaztelekuaren Arroabeko AISIALDI taldea:

A12. Elkargunean. HH: 17:00-18:00 eta
LH: 18:00-19:00.

KONKALDIAZU IPUIN BAT: Abenduak 2
eta 16 (17:30, liburutegian)

PELIAN: Abenduak 14



ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi 695 721 015 Isidro Fernandez 690 108 996 Joan Fernandez 667 537 892



ZURE PUBLIZITATEA

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:
info@danbolin.eus





Fruta freskoa, zure lorategian bertan!

Orain da landatzeko unerik onena! Laranjondo,
sagarrondo, limoiondo, mango, aguakatero...
Aukera zabala dugu gure gardenean!

Urrestilla bidea
Azpeitia
697 250 292
www.kimubat.eus



KIMUBAT
— GARDEN

